

## INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO ESKUBIDEA

<p><b>ZER DA? ZERTARAKO BALIO DU?</b></p>	<p>Herritarrek eskatzen duten <b>informazio publikoa</b>, arrazoitzeko beharrik gabe, eskuratzeko duten eskubidea ahalbidetzea.</p> <p><b>Informazio publikoak</b> dira Udalak dituen eta bere funtzioak betetzeko lortu edo erabili dituen eduki edo agiriak, euskarria edozein izanik ere.</p> <p>Halaber, Udalak argitaratu behar duen Publizitate Aktiboari buruzko edozein informazio eskuragarri dago Leioako Udalaren Gardentasun Atarian.</p>
<p><b>NORK ESKA DEZAKE?</b></p>	<p>Edozeinek edo haren legezko ordezkariak.</p>
<p><b>ESKAERA EREDUA</b></p>	<p><a href="#">ESKAERA OROKORRA</a></p>
<p><b>AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK</b></p>	<p>Dokumentazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskatzaileak egoki ikusten duena eskaerari hobeto erantzuteko.</li> <li>• <a href="#">KUDEAKETA BAIMENA</a> izapidea interesduna ez den beste batek egin edo sinatzen badu (ordezkatzen den pertsonaren NAN originala edo kopia aurkeztu beharko da).</li> </ul>
<p><b>NON IZAPIDETZEN DA?</b></p>	<p> <b>Udaletxea</b> (Elexalde, 1)</p> <p> <b>Bulego deszentralizatua</b> (Langileria, 202)</p> <p>Ordutegia:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Udan: astelehenetik ostiralera: 8:30 – 13:30</li> <li>• Urteko gainerako egunetan: astelehenetik ostiralera: 8:30 – 14:30.</li> </ul>
<p><b>INFORMAZIO GEHIAGO</b></p>	<p><a href="mailto:info@leioa.net">info@leioa.net</a>  <a href="mailto:info.pinueta@leioa.net">info.pinueta@leioa.net</a>          Udaletxea: 94.400.80.00   94.400.80.20          Bulego deszentralizatua: 94.464.67.22</p>
<p><b>PREZIOA</b></p>	<p>Udalak hartzen du bere gain kudeaketaren kostua.</p>
<p><b>EBATZI ETA JAKINARAZTEKO EPE ESTIMATUA</b></p>	<p>Epe estimatua: hilabete eskabidea jasotzen denetik, eta beste hilabetez luza daiteke eskatzen den informazioaren tamainak edo konplexutasunak hala eskatzen badute.</p> <p>Ebazteko gehieneko epea igarotzen bada ebazpena eman eta jakinarazi gabe, isiltasun horrek esan nahiko du eskaera ukatu dela</p>

## INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO ESKUBIDEA

<p><b>ARAUDI APLIKAGARRIA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <a href="#">Gardentasunari, Informazioa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko 19/2003 Legea (2013-12-10eko 295. BOE)</a></li> <li>• <a href="#">30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena (1992-11-27ko 285. BOE; 1992-12-28ko 311. BOE; 1993-01-27ko 23. BOE)</a></li> <li>• <a href="#">Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea (1985-04-03ko 80. BOE)</a></li> <li>• <a href="#">Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko 11/2007 Legea (2007-06-23ko 150. BOE)</a></li> <li>• <a href="#">Ingurumen gaitan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitegietara joateko eskubideak arautzen dituen 27/2006 Legea</a></li> <li>• Informazioa eskatzen den gaiari buruzko araudiak.</li> </ul>
<p><b>ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA</b></p>	<p>Informazioa eman erabilgarri dauden tresnen bidez (izapideen eskuliburua, eredu en liburutegia, eskabideena, e.a.)</p> <p>Informazio zehatzik behar izanez gero, egoki den Saileko teknikariaren kontaktua emango da.</p>
<p><b>GEROAGOKO IZAPIDEAK</b></p>	<p>Egoki dena gaiaren arabera.</p>
<p><b>OHARRAK / ARGITZAPENAK</b></p>	<p><b>Informazioa eskuratzeko eskubidearen mugak:</b></p> <p>Informazioaren izaera bera, gai jakin batzuei eragiten dienean edo gatazkarik sortzen badu babestutako beste interes batzuekin (datu pertsonalak), horiek dira eskubide hau muga dezaketen arrazoi bakarrak. (Gardentasunari, Informazioa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko 19/2003 Legeko 14. artikulua).</p> <p><b>Eskabideak ez onartzeko arrazoiak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lantzen ari den edo argitaratzeko bidean dagoen informazioari buruzkoak izatea.</li> <li>• Informazio lagungarriari buruzkoak izatea, hala nola, ohar, zirriborro, barne txosten eta abarretan egon daitekeena.</li> <li>• Ezagutzera emateko berriz landu behar den informazioari buruzkoak izatea.</li> <li>• Informazioa ez duen erakunde bati zuzenduta egotea, eta organo eskuduna ezagutzen ez denean.</li> <li>• Nabarmen errepikakorrak izatea edo Legearen gardentasun xedearekin justifikatu ezin den abusuzko izaera edukitzea.</li> </ul>
<p><b>SAIL ARDURADUNA</b></p>	<p>IDAZKARITZA</p>